

EIBARREN FINKATUTAKO ENPRESEK LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Lehena: araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko araubidea hau da:

- a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzetarako Lege Orokorra (DLO).
- b) 887/2006 Errege-Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- c) Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko arazoaren 26an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoak Aldizkari Ofizialean 12. zk.an argitara eman zena.
- d) Deialdi honetan jasotako klausulak.

Jarduketa hau Eibarko Enplegu eta Toki Garapenerako Planaren (LAP) barruan sartzen da, Enpleguaren 15/2023 Legearen arabera. Tokiko enpresek langabeak kontratatzeke zuzeneko laguntzak ematean datza. Jarduera hori, neurri batean, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak finantzatzen du.

Bigarrena: dirulaguntzaren xedea.

Dirulaguntzen Lege Orokorren 23.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, udal honek dirulaguntzak emateko deialdia egiten du, bertako enpresek Eibarko langabetuak merkatu arruntean kontratatzea errazteko.

CONVOCATORIA DE SUBVENCIÓN PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS POR PARTE DE EMPRESAS RADICADAS EN EIBAR

Primero: normativa reguladora.

La concesión de las subvenciones objeto de esta convocatoria se regula por:

- a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS).
- b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.
- c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, aprobada por el Pleno Municipal de 26-11-2012 (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 12, de 17 de enero de 2013).
- d) Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

Esta actuación se integra dentro del Plan de Empleo y Desarrollo Local (PEDL) de Eibar, de conformidad con la Ley 15/2023 de Empleo. Consiste en la concesión de ayudas directas para la contratación de personas desempleadas por parte de empresas locales. Esta actuación está en parte financiada por LANBIDE-Servicio Público Vasco de Empleo.

Segundo: objeto de la subvención.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 de la LGS, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones para proporcionar apoyo económico para facilitar la contratación de personas desempleadas de Eibar en el mercado ordinario por parte de las empresas locales.

Hirugarrena: dirulaguntza egotzi zaien aurrekontu-kredituak.

Dirulaguntza hau emateko Udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da:

PARTIDA: 1.1000.471.06.241.00 “Beste enpresa batzuei”

ZENBATEKOA: 209.518€ (LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuak aurreikusitako finantzaketa: 149.518 €; Eibarko Udalaren finantzaketa: 60.000 €).

Baimendutako kreditua agortu ondoren erantzun gabeko dirulaguntza-eskaerak baldin badaude, eta eskumena duen organoak hala erabakiz gero, handitu ahal izango da dirulaguntzen aurrekontu-partida, ebatzi gabekoei erantzuteko.

Partida-handitzea ezingo da deialdiari egotzitako zenbatekoaren % 20a baino handiagoa izan.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko baldintza da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditu-gehikuntza baten ondorioz kreditua erabilgarri deklaratzeari, hala bada kasua, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren.

Laugarrena: dirulaguntza emateko prozedura.

Dirulaguntza zuzenean emango da sarrera-hurrenkeran, horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

“Ebaluazio bakoiztutzat” ulertu behar dena da dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura, espedienteak aurkeztu ahala tramitatzen eta ebazten joaten direna, baldin eta horretako kreditu erreserbatua badago.

Tercero: créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención.

Se destinarán a la concesión de esta subvención la siguiente cantidad del presupuesto de la Corporación:

PARTIDA: 1.1000.471.06.241.00 “A empresas”

IMPORTE: 209.518€ (financiación prevista por LANBIDE - Servicio Público Vasco de Empleo: 149.518 €; financiación por parte del Ayuntamiento de Eibar: 60.000 €).

Si una vez agotado el crédito autorizado existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

La ampliación no podrá ser superior al 20 % del importe consignado en la convocatoria.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito como consecuencia de una ampliación de crédito, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda, en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Cuarto: procedimiento de concesión.

La concesión se efectuará por orden de entrada en régimen de concesión directa mediante el sistema de evaluación individualizada.

Se entenderá por “evaluación individualizada” el procedimiento de concesión en el que los expedientes serán tramitados y resueltos conforme se vayan presentando y en cuanto se disponga de crédito reservado para ello.

Bosgarrena: dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2. artikulua aipatzen duen debeku bat bera ere ez duten Eibarren lanlekua finkatuta eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Dirulaguntza jasotzeko baldintza hauek bete beharko dira:

Kontratatuak den pertsonak bete behar dituen baldintzak:

- a) Eibarren erroldatuta egotea, gutxienez 2026ko urtarrilaren 1etik.
- b) Langabea izatea eta LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda eta lan-eskatzaileria gisa alta emanda egotea gutxienez kontratua hasi baino hilabete lehenago.
- c) Bigarren gradua arteko (hau barne) odol- edo ezkontza-ahaidetasunik ez izatea sozietatearen izaera juridikoa osatzen duten enpresetako administrazio-organismoetako edo zuzendaritzako kideekin, enpresaburuarekin edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontidearekin, oinordekoekin eta gainerako senideekin.
- d) Enpresa berak kontratatu ez izana, kontratazio hori aurreko deialdietan diruz lagundu bazen.

Kontratazioan bete beharreko baldintzak:

Lanaldi osoa edo lanaldiaren % 50 gutxienez duten lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak soilik finantzatu dira,

Kontratuen iraupena 12 hilabetekoa izango da gutxienez, eta kontratu mugagabearen bidez formalizatu beharko da.

Quinto: requisitos para solicitar la subvención.

Podrán acceder a estas subvenciones, las personas físicas o jurídicas de naturaleza privada con centro de trabajo y actividad económica en Eibar que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS.

Para acceder a la subvención será necesario cumplir con los siguientes requisitos:

Requisitos a cumplir por la persona a contratar:

- a) Constar empadronada en Eibar como mínimo desde el 1 de enero de 2026.
- b) Ser desempleada y estar inscrita y de alta como demandante de empleo en LANBIDE - Servicio Público Vasco de Empleo al menos un mes antes del inicio del contrato.
- c) No tener relación de parentesco por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, con el/la empresario/a o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de la sociedad.
- d) No haber sido contratada por la misma empresa si dicha contratación fue subvencionada en convocatorias anteriores.

Requisitos a cumplir en la contratación:

Sólo se financiarán los contratos indefinidos a jornada completa o a tiempo parcial con un mínimo del 50 % de jornada.

La pervivencia de los contratos será de al menos 12 meses debiendo formalizarse mediante contrato indefinido.

Edonola ere, kontratuak 2026ko urtarrilaren 1a eta 2026ko abenduaren 31a bitartean hasi beharko dira, eta diruz lagungarri den epealdia 12 hilabetekoa izango da, nahiz eta iraupena data horretatik haratago joan.

Kasu guztietan kontratuak dagozkion sektorearen hitzarmenaren arabera egingo dira.

Kontratazioek enplegu garbia sortu behar dute enpresan dagoen batez besteko plantillan, diruz lagundutako kontratua duen pertsona lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan. Kontratu berriaren ondorioz, esandako batezbestekoak gora egin beharko du kontratazio-egunean.

Ez dira 4 kontratu baino gehiago diruz lagunduko onuradun bakoitzeko.

Diruz lagundu beharreko hilabeteetan lan-kontratua deuseztatzen bada probaldia ez gainditzeagatik, borondatez lana uzteagatik, bidezkotzat jotako kaleratzeagatik edo kontratatutako pertsonaren heriotzagatik edo baliaezintasunagatik, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuaren benetako iraupenaren arabera, edo beste kontratu bat egin ahal izango da, diruz lagundutako jatorrizko kontratuaren baldintza berberetan, 15 egun naturaleko epean. Diruz lagundutako jatorrizko kontratuaren eta lanpostuaren tipologia bera hartuko da kontuan.

Seigarrena: eskaerak aurkeztu behar diren epea eta lekua.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea —deia egiten duen organoari zuzenduak eta onuradunak edo haren ordezkari gisa diharduenak izenpetuta, eskaerari erantsitako dokumentazioarekin batera— **2026ko irailaren 21ean hasiko da eta 2027ko urtarrilaren 15ean (biak barne) amaituko da.**

En cualquier caso, los contratos deberán iniciarse entre el 1 de enero de 2026 y el 31 de diciembre de 2026, y el periodo subvencionable será de 12 meses, sin perjuicio de que su duración vaya más allá de dicha fecha.

En todos los casos, los contratos deberán de realizarse de acuerdo con el convenio del sector correspondiente.

Las contrataciones deberán suponer creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 6 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas cuyo contrato se subvencione. A fecha de contratación, el nuevo contrato ha de suponer un incremento sobre dicha media.

No se subvencionarán más de 4 contratos por cada beneficiario/a.

En el caso de que se rescindiera el contrato de trabajo a lo largo de los meses a subvencionar debido a la no superación del periodo de prueba, cese voluntario, despido declarado procedente o por muerte o invalidez de la persona contratada, se reducirá el importe de la subvención en proporción a la duración efectiva del contrato de trabajo o se podrá realizar un nuevo contrato, en los mismos términos que el original subvencionado, en el plazo de 15 días naturales. Se considerarán mismos términos, la misma tipología de contrato y puesto de trabajo que el original subvencionado.

Sexto: plazo y lugar en que deben presentarse las solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación anexa, **comenzará el 21 de septiembre de 2026 y finalizará el 15 de enero de 2027 (ambos inclusive).**

Dirulaguntza-eskaerak **elektronikoki** egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Zazpigarrena: aurkeztu behar diren dokumentuak eta argibideak.

Dirulaguntza hau tramitzeko, aplikagarri den araudi erregulatzailerak eskatzen dituen hainbat datu eta dokumentu behar dira, interesdunek aurkeztu behar dituztenak.

Hala ere, interesdunek honako hauek ez aurkezteko eskubidea dute (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Eibarko Udalaren esku dauden datuak edo dokumentuak.
- Beste edozein administrazio egindako dokumentuak.
- Dokumentu originalak (salbu eta, salbuespen gisa, aplikagarria den araudiak kontrakoa ezartzen badu).
- Interesdunak lehenago edozein administrazioan aurkeztutako datuak edo dokumentuak.

Era berean, administrazio publikoek dokumentuak elektronikoki biltzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoa batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikulua).

Alde horretatik, eta dirulaguntza hau tramitzeko, datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez Eibarko Udalak administrazio publiko eskudunei honako informazio hau kontsultatuko die, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari;

Las solicitudes de subvención deberán realizarse **electrónicamente** a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).

Séptimo: documentos e informaciones que deben presentarse.

La tramitación de esta subvención requiere de diversos datos y documentos exigidos por la normativa reguladora aplicable que deben ser aportados por las personas interesadas.

No obstante, las personas interesadas tienen derecho a no aportar (art. 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas):

- Datos o documentos que estén en poder del Ayuntamiento de Eibar.
- Documentos que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.
- Documentos originales (salvo que, con carácter excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario).
- Datos o documentos que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada en cualquier Administración.

Así mismo, las Administraciones Públicas tienen el deber de recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto (art. 155 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público).

En este sentido, y para la tramitación de esta subvención, el Ayuntamiento de Eibar consultará a través de plataformas de intermediación de datos o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes la siguiente información, siempre y cuando la persona

kasu horretan, interesdunak dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Gipuzkoako, Bizkaiko eta/edo Arabako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Kontratututako pertsonak: Langabea izatea eta LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda eta lan-eskatzaile gisa alta emanda egotea gutxienez kontratua hasi baino hilabete lehenago.
- Kontratututako pertsonak: kolektibo berezietakoak diren ala ez, eta, hala badagokio, kolektibo mota.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoen batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Lan-kontratuak ez baditu betebeharreko baldintzak betetzen edo eskatutako dokumentazioa ez bada epe barruan aurkezten, dirulaguntzari uko egiten zaiola ulertuko da.

Elektronikoki bete behar den formularioari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) Eskatzailearen identitate juridikoaren egiaztagiriak:

- Pertsona fisikoek: NANA edo balio bereko agiria.
- Pertsona juridikoek: eskrituraren edo entitatearen eratu izanaren agiria eta estatutuak; estatutuak behar bezala

interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes:

- En caso de representación legal, estar registrado/a en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Estar al corriente de pago de obligaciones con la Seguridad Social.
- Estar al corriente de obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia y/o Álava.
- Personas contratadas: ser desempleada y estar inscrita y de alta como demandante de empleo en LANBIDE - Servicio Público Vasco de Empleo al menos un mes antes al inicio del contrato.
- Personas contratadas: la pertenencia o no a colectivos especiales, y en su caso, tipo de colectivo al que pertenece.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, el Ayuntamiento de Eibar podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

En el caso de que el contrato no cumpla los requisitos establecidos o la documentación requerida no se presente en plazo se entenderá que se renuncia a la subvención.

Esta es la documentación a adjuntar al formulario que se cumplimentará electrónicamente:

a) Documentos acreditativos de la personalidad jurídica de el/la solicitante:

- Personas físicas, DNI o documento equivalente.
- Personas jurídicas: escritura o documento en que conste la constitución de la entidad y los Estatutos, debidamente inscritos en

inskribatuta egon behar dira Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan.

- Sozietate zibilek: sozietate zibilaren eraketa-kontratua, IFZ eta sozietate zibila osatu duten pertsona guztien NANA edo horren balio bereko dokumentua.
- Ondasun erkidegoek: ondasun-erkidegoa eratzeko kontratua eta IFZ. Komunitateak ez badu IFZrik, komunitatea osatzen duten pertsona guztien NAN edo agiri baliokidea.

b) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko agiria eta ordezkariaren dokumentazio-egiaztapena. Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatu ahal izango da. Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.

c) Zergak Gipuzkoa, Bizkaia edo Araba ez den beste lurralde batean ordaintzen badira, eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.

d) Frogagiri eguneratua, eskatzaileak duen banku-kontuaren titularitatearena; eskatzailearen identitatearekin bat etorri behar dena. Ondoko dokumentu hauetatik edozein da balioduna: laburpen bankarioa; aurrezki-libreta; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo "Titular-kontua" izeneko orria EE1004_D002 ereduaren arabera (eredua Udalaren webgunean dago eskuragarri, www.eibar.eus) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.

e) Kontratutako pertsonen lan-kontratua.

f) Kontratazioarekin betetako lanpostuaren zereginei eta funtzioei buruzko txostena.

el Registro Mercantil o en el que corresponda.

- Sociedades civiles: contrato de constitución de la sociedad civil, NIF y DNI o documento equivalente de todas las personas que constituyan la sociedad civil.
- Comunidades de bienes: contrato de constitución de la comunidad de bienes y NIF. Si la comunidad carece de NIF, DNI o documento equivalente de todas las personas que la constituyan.

b) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la misma. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho. No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) En caso de tributar en Territorios diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava, certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de que el/la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.

d) Documento justificativo actualizado de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de el/la solicitante. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso "Titular-cuenta" según modelo EE1004_D002 (modelo disponible en la web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.

e) Contrato de trabajo de las personas contratadas

f) Informe sobre las tareas y funciones del puesto de trabajo cubierto con la contratación.

g) Kontratatuak izan diren pertsonen NAN/AIZ.

h) Kontratututako pertsonen Gizarte-Segurantzaren alta-agiria.

i) Gizarte Segurantzaren Kotizazio Datuen Txostena.

j) "Alta emanda dauden langileen batez besteko lantaldearen txostena": bata, kontratazioa egin aurreko 6 hilabeteetan egindakoa; bestea, kontratazioaren ondorengo 5-10 egunetan egina.

Adibidez: Diruz lagundu beharreko kontratu bat 2026ko irailaren 18an hasten da. Aurkeztutako txostenak honako hauek izan beharko dute:

- 2026/03/18tik 2026/09/17ra bitartean emandako batez besteko plantillaren txostena: 4,89.
- Batez besteko plantilla, 2026/09/25ean: 6.

k) Kontratututako pertsonen Lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandakoa, kontratua hasi eta hurrengo egunetik aurrera ateratakoa.

l) Kontratututako langileen "Izena emateko epeei buruzko txostena", Lanbidek kontratazioa hasi ondoren emandakoa.

m) Eskatutako eta/edo kobratutako beste dirulaguntzei eta laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena EE1004_D003 ereduaren arabera (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta eta entitate onuradunak sinatuta.

Zortzigarrena: akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.

Espedientea bideratu duen organoari dagokio, eskaerak, deialdi honetan eskatutako baldintza administratibo guztiak

g) DNI/NIE de las personas contratadas.

h) Documento de alta en la Seguridad Social de las personas contratadas.

i) Informe de Datos para la Cotización (IDC) emitido por la Seguridad Social.

j) "Informe plantilla media de trabajadores en alta": uno, expedido en los 6 meses inmediatamente anteriores a la contratación; y otro, 5-10 días después de la contratación.

Ejemplo: Un contrato a subvencionar comienza el 18 de septiembre de 2026. Los informes aportados deberán ser:

- Informe de plantilla media expedido en el periodo comprendido entre el 18/03/2026 y el 17/09/2026: 4,89.
- Plantilla media a fecha 25/09/2026: 6.

k) Informe de Vida Laboral de las personas contratadas, expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social, con fecha posterior al inicio del contrato.

l) Documento "Informe de períodos de inscripción" de las personas contratadas emitido por Lanbide con fecha posterior al inicio de la contratación.

m) Declaración responsable de otras subvenciones y ayudas cobradas y/o solicitadas según modelo EE1004_D003 (disponible en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y firmado por el/la entidad beneficiaria de la subvención.

Octavo: subsanación de defectos y preevaluación

La comprobación de que la solicitud reúne los requisitos administrativos exigidos en esta convocatoria y de que se aporta la

bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela egiaztatzea; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikulua araberak. Hamar laneguneko epe luzaezin gehieneko eskatutako dokumentazioa ekarri ez edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenei, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

Bederatzigarrena: dirulaguntzaren zenbatekoa.

Erabilgarri dagoen kreditua agortu arteko kontratu **mugagabeak** finantzatzeko dira. Kontratu mota bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

- **Lanaldi osoko edo gutxienez % 50eko lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak.**
 - 6.000 euroko dirulaguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko eta diruz lagun daitekeen 12 hilabeteko aldi bakoitzeko. Gutxienez % 50eko lanaldi partzialeko kontratazioen kasuan, dirulaguntza proportzionala izango da lan egindako lanaldiarekiko. Dirulaguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.
 - 12.000 euroko laguntza kolektibo berezietako pertsonentzako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko eta diruz lagun daitekeen 12 hilabeteko aldi bakoitzeko. Gutxienez % 50eko lanaldi partzialeko kontratazioen kasuan, dirulaguntza proportzionala izango da lan egindako lanaldiarekiko.
- Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako

documentación indicada en el párrafo anterior competirá al órgano instructor que podrá requerir la subsanación de conformidad con el artículo 23.5 de la LGS. A quienes no aportaran la documentación requerida o no subsanaran los defectos después de requeridos en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles se les tendrá por desistidos/as de su solicitud.

Noveno: importe de la subvención

Se financiarán contratos **indefinidos** hasta agotar el crédito disponible. El importe de la subvención para cada tipo de contrato será el siguiente:

- **Contratos indefinidos a jornada completa o tiempo parcial con un mínimo del 50 % de jornada.**
 - Subvención de 6.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa y periodo subvencionable de 12 meses. En el caso de contratación a tiempo parcial con jornada mínima del 50%, la subvención será proporcional a la jornada trabajada. La cuantía final de la subvención no podrá superar el 75 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.
 - Subvención de 12.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa a personas pertenecientes a colectivos especiales y periodo subvencionable de 12 meses. En el caso de contratación a tiempo parcial con jornada mínima del 50%, la subvención será proporcional a la jornada trabajada. La cuantía final de la ayuda no podrá superar el 100 % de los costes salariales anuales de la persona

pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

Kolektibo berezietako pertsonak honako hauek dira:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edota bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) jasotzen duten titularrak edo onuradunak.
- Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetutzat jotzen dira LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan lan-eskatzailerik gisa izena emanda dauden eta iraupen luzekoak diren langabetuak, kontratazioaren data baino lehenagoko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egoera horretan egon badira.
- 45 urte baino gehiago dituztenak.

Se consideran personas de colectivos especiales:

- Perceptores/as titulares o beneficiarios/as de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o Ingreso Mínimo Vital (IMV).
- Personas desempleadas de larga duración. Se entiende por personas desempleadas de larga duración aquellas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en LANBIDE - Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo al menos 360 días en el periodo de los últimos 540 días previos a la fecha de la contratación.
- Personas mayores de 45 años.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak % 20 haziko dira, kontratuak emakumeekin egiten direnean. Dirulaguntzaren amaierako zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

Todas las cuantías de subvención se incrementarán un 20 % adicional cuando los contratos se celebren con mujeres. El importe final de la subvención, al aplicarse dichos incrementos, no podrá superar el 100 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

Hamargarrena: dirulaguntza emateko prozedura agintzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.

Décimo: órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.

Prozedura Eibarko Udaleko Enplegua eta Talentua saileko teknikariak bideratuko du.

La instrucción del procedimiento se desarrollará por el/la técnico/a del departamento de Empleo y Talento del Ayuntamiento de Eibar.

Dirulaguntza emateko ebazpena Eibarko Alkateari dagokio.

La resolución de la concesión competirá al Alcalde del Ayuntamiento de Eibar.

Onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Dirulaguntza onartutzat joko da, onuradunek aipatutako epe horretan ez badute espresuki beren ukoa adierazi.

Hamaikagarrena: onuradunak dirulaguntzaren berri ematea.

Dirulaguntza honen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, ez da bidezkoa onuradunak horren zabalkundea egitea.

Hamabigarrena: onuradunak dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko epea eta modua.

Dirulaguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak erabili direla **justifikatzeko epea hilabetekoa izango da**, diruz lagundu daitekeen aldia amaitu ondoren.

Deialdi honetako bosgarren puntuan adierazitako arrazoren batengatik diruz lagundu beharreko hilabeteetan zehar lan-kontratua deuseztatzen bada, justifikazio-epea hilabetekoa izango da, kontratua deuseztatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Azken justifikazioa JUSTIFIKAZIO KONTUA modalitatearen bidez egingo da. **Elektronikoki** aurkeztuko da udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitearen bidez (www.eibar.eus) eta honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Kontratuaren xede den pertsonari buruzko dokumentu hauek:

- Gizarte Segurantzaren Kotizazio Datuen Txostena.
- RNT eta RLC.

Los/as beneficiarios/as dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados a partir del día siguiente de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de los/as beneficiarios/as si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente su renuncia.

Decimoprimer: difusión de la subvención concedida por parte de el/la beneficiario/a.

Dadas las características especiales de esta subvención no procede su difusión por parte de el/la beneficiario/a.

Decimosegundo: plazo y forma de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención.

El plazo de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos será de **un mes tras la finalización del periodo subvencionable**.

En el caso de que se rescindiera el contrato de trabajo a lo largo de los meses a subvencionar por alguna de las causas indicadas en el punto quinto de esta convocatoria, el plazo de justificación será de un mes a partir de la fecha de rescisión del contrato.

La forma de justificación final será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA. Se presentará **electrónicamente** a través del trámite **PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN** de la página web municipal, www.eibar.eus y contendrá los siguientes documentos:

a) Los siguientes documentos relativos a la persona objeto de la contratación:

- Informe de Datos para la Cotización (IDC) emitido por la Seguridad Social.
- RNT y RLC.

- Kontratazio aldiari dagozkion nominak.
- Nominen ordainagiriak.

b) Zerga Gipuzkoatik, Bizkaitik edo Arabatik kanpoko lurraldeetan ordaindu behar izanez gero, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Eskatutako eta/edo kobratutako beste dirulaguntzei eta laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena EE1004_D003 ereduaren arabera (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta eta entitate onuradunak sinatuta.

Hamahirugarrena: dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntza aldeaz aurretik ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

Deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

Hamalagarrena: bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administratibotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozela, zeinahi delarik ere jatorria.

Dirulaguntza hauek bateraezintasunak izango dira helburu berbererako eta kontzeptu beragatik emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administratibotatik edo erakunde publikotatik zein pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozela, zeinahi delarik ere jatorria; dirulaguntza edo laguntza horien araudi erregulatzailerak ezar dezakeena eragotzi gabe, Gizarte Segurantzak

- Nóminas correspondientes al periodo de contratación.
- Justificantes de pago de las nóminas.

b) Certificación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias en caso de tributar en Territorios diferentes a Gipuzkoa, Bizkaia o Álava.

c) Declaración responsable de otras subvenciones y ayudas cobradas y/o solicitadas según modelo EE1004_D003 (disponible en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y firmado por el/la entidad beneficiaria de la subvención.

Decimotercero: pago de la subvención.

El pago de la subvención se realizará de manera anticipada en el momento de la resolución de la concesión de subvención.

El incumplimiento de alguno de los requisitos establecidos en la presente convocatoria será causa de reintegro de la subvención.

Decimocuarto: compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Estas subvenciones serán incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad y por el mismo concepto, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas, excepto las bonificaciones otorgadas por la Seguridad Social y los beneficios por la

emandako hobariak izan ezik eta langabeziagatiko babes-sistema erreformatzeko eta lan-aukerak areagotzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. paragrafoan enpresentzat ezarritako 52 urtetik gorako langabeak kontratatzeagatiko onurak.

Hamabosgarrena: dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzearen graduazio-irizpideak, onuradunak jaso beharreko zenbatekoa, edo hala badagokio itzuli beharrekoa zehazteko xedez.

DLOren 37. artikuluan ezarritako baldintzakoren bat ez betetzeak edo epe kanpo egiteak—baldintza guztiak betetzea edo epe barruan aurkeztea erabakigarria denean, lortu nahi den helbururako—eskubide guztiak, eta hala bada kasua, baita diru-itzulketarena ere kenduko dizkio onuradunari.

Administrazioak egiaztapen bat edo kontrol finantzario bat egitean, dirulaguntza kobratu ondoren egindako gastu guztia edo zati bat ez dela ordaindu antzemango balitz —hartzekodunek exijitzekoak izanik—, itzulketa galdutako da proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, zeinaren arabera dirulaguntza itzulgarritzat joko den ordaindu gabeko gastuen proportzio berean.

Hamaseigarrena: dirulaguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak. Zehapen-prozedura.

Arlo honetan, EIBARKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoari men egingo zaio.

contratación de personas desempleadas mayores de 52 años establecidas para las empresas en el apartado 4 de la disposición transitoria quinta de la ley 45/2002, de 12 de diciembre, de medidas urgentes para la reforma del sistema de protección por desempleo y mejora de la ocupabilidad.

Decimoquinto: criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones a efectos de determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el/la beneficiario/a o, en su caso, el importe a reintegrar.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones en los términos establecidos en el art. 37 de la LGS o su cumplimiento extemporáneo, cuando el cumplimiento total de las condiciones o del plazo fuera determinante para la consecución del fin público perseguido, será causa de pérdida total del derecho y de reintegro, en su caso.

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

Decimosexto: infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.

En esta materia se estará a lo dispuesto en el TÍTULO VI de la ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE EIBAR.

Hamazazpigarrena: ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago berrazterketa-errekurtsoa aurkezteko ebazpena eman zuen organoan, edo, bestela, bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioako Auzien Donostiako Epaitegian, Atotxako Justizia Auzitegian (Teresa Kalkutakoaren plaza 1).

Hamazortzigarrena: izaera pertsonaleko datuen babesa.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak Udalak pertsona fisikoei, elkarteei eta erakundeei emandako laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzeko behar den informazio pertsonala kudeatzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Kontuhartzailetza Saila (Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitatea).
Telefonoa: 943- 70 84 09. Emaila: kontrata@eibar.eus

Decimoséptimo: indicación de si la resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución de la concesión pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la resolución, o interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, con sede en el Palacio de Justicia de Atotxa, sito en la Plaza Teresa de Calcuta nº 1.

Decimoctavo: protección de datos de carácter personal.

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de gestionar la información personal necesaria para la tramitación de ayudas y subvenciones concedidas por el Ayuntamiento a personas físicas, asociaciones y entidades, en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Área de Intervención (Unidad de Contratación y Subvenciones) del Ayuntamiento de Eibar.
Teléfono 943- 70 84 09. Email: kontrata@eibar.eus

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak daude; horretarako idazki bat egin behar zaio Eibarko Udaleko tratamenduaren arduradunari, honako helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Derechos: Le recordamos que existen los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de sus datos, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar a la siguiente dirección: Untzaga plaza 1 – 20.600 Eibar (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.